

KANALAK

Eskainiko dugun zerbitzua bezeroengana irits dadin, publizitatea ezinbestekoa izango da. Hori Internet bidez egitea erabaki dugu, besteak beste gure plataforma internet bidez erabiltzen delako eta gure etorkizuneko erabiltzaileek Interneta dutelako informazio-iturri nagusi. Baina, zer motatako publizitatea? Egokiena, gure ustez behintzat, 25 segundo inguruko iraupena izango duten iragarkiak egitea da eta horietan azalduko den edukiari dagokionez, gure plataforma zertan datzan azalduko dugu eta erabiltzearen abantailak zein diren. Hurrengo batean, gure aplikazioaren funtzionamenduaren azalpen laburra emango dugu eta zenbait erabiltzaileen iruzkinak argitaratuko. Irargarki horiek sare sozialen bidez hedatzea da modu azkarrena eta eraginkorrena. Instagram, Facebook eta Twitter izan daitezke erabilienak nahiz eta Youtube ere erabilgarri izan.

Guk enpresa gisa egingo ditugun iragarkietaz gain, argitaletxeekin eginda hitzarmenari esker, argitaletxeek ere gure plataforma erabiltzearen lan egingo dute. Haien egingo duten publizitatea zeharkakoa izango dela esan daiteke. Esate baterako, haien argitaletxeak argitaratutako liburu bat saltzean, gure plataforma erabiltzeko liburuxka bat egongo da barruan eta bertan aplikazioa erabiltzeko %10eko deskontua azalduko da.